



Pil-pilean

TOKI
MUGATU

Soraluzeko hilabetekaria
2024ko uztailea · 412 alea

DANBOR HOTSAK BERRIZ JAIETAN





PIL-PILEAN 412

2024ko uztaila

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|
| 4 | Begira Espektakularra | IRITZIA |
| 6 | Jaiak Lehen eguna, herriko taldeen eskaintza. umeendako eta gazteendako eskaintza, gastronomia eta Galtzagorrixen egitaraua | 3 Neuretik Aritz Arizaga <i>Etorkizuneko erronkak</i> |
| 14 | Argazki bidez Hunkigarriak | 16 Gutunak Elkartasun txosna 1978. <i>urteik jaietan elkartasun keinua</i> |
| 18 | Erreportajea Biziberrituta, bueltan da danborrada | 16 Komiki tira |
| 24 | Kirola Futbitoko finalak eta pilota jaialdia | 17 Hausnarketa Zer duzu jaietatik gustukoen? |
| 25 | Kultura Elkarriketak: Zopilotes Txirriaso, Tapia eta Leturia, Goxua'n Salsa eta Maracumbé | 17 Puntua Alberto Iñurrieta <i>Baraua</i> |
| 30 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Ander Gomez
ander@pilpilean.eus

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi
Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

SORALUCE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Etorkizuneko erronkak



ARITZ ARIZAGA ALTUNA

Adimen artifiziala. Gutxi jakingo dute benetan zer den hori, baina, aparte-apartean bizi ezean, benetan aparte, denok entzun dugu kontzeptu hori. Are gehiago, askok erabili egiten dugu, egunero, konturatu gabe, inkontzienteki ere askotan. Duela ez hainbeste imajinatu ere ez genuen egiten zer izan zitekeen hori, eta gaurko egunkaria hartzen baduzu, aldiz, litekeena da artikuluren batean aipatuta ikustea, hari buruzko albisteren bat aurkitzea, argazki edo irudiren bat adimen artifizialak sortua izatea edo, are, testu zatiren bat makinak idatzitakoa izatea.

Egunkaria egoeraren isla da, termometroa, nolabait esan: adimen artifiziala gure artean dago eta haren eragina jasango dugu, nahi ala nahi ez, onerako nahiz txarrerako. Han eta hemen idazten direnak irakurrita eta esaten direnak entzunda, badirudi adimen artifiziala tresna itzela dela, oso ahaltsua, eta oraindik hasiberriak garela beraz erabiltzen. Etorkizun oparoa omen du, egunetik egunera gauza gehiago egiteko gai izango omen da, azkarrago eta hobeto.

Ni konturatuta nago, esaterako, makina-itzultzaileak kalitate handiko lana egiten dutela adimen artifizialari eta sare neuronal izeneko zerei esker. Eta horrek lana errazten die itzultzaile eta interpreteei, eta aukera ematen die itzultzaile ez direnei itzulpen txukunak egiteko, eta ateak irekitzen dizkie hizkuntza bat jakin gabe hizkuntza horretan sortutako edukiak kontsumitu nahi dituztenei... Mila bide berri irekitzen ari da makinaren adimen hori!

Bide horiek, ordea, ez daude arriskuetatik libre. Zer eragin du adimen artifizialaren garapen bizkortuak gurea bezalako hizkuntza minorizatu baten biziberritzean? Ari dira egiten eta etengabe hobetzen itzultzaile neuronalak, hizkuntza eredu erraldoiak sortzen (Latxa) —hizkuntza erraldioen pare jarri nahian—, *euskal* ahotsa sortzeko tresna elikatzen (Gaitu)... eta hori guztia bertako erakunde publiko eta enpresa pribatuak eta kanpoko enpresa teknologiko erraldoiak ari dira egiten. Dena euskarak bizirauteko, atzean gera ez dadin mundu berri horretan, euskaldunok euskara baliatzeko aukera gal ez dezagun. Horren guztiaren atzean bestelako interesik, dirua tarteko, ez balego bezala. Azkenean zer eta BBCK argitaratutako azken primizia euskaraz irakur dezagun lau zorok edo euskara ez dakien greziar batek Argiaren erreportaje bat grezieraz irakurtzeko. Hausnartzeko zer irabazi zeren ordainetan.

**"ASKOK EGUNERO
ERABILTZEN DUGU
KONTURATU GABE,
INKONTZIENTEKI ERE
ASKOTAN"**

"Espektakularra"

ARGAZKIA ETA TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

Zapatuan jokatu zuten Asier eta Iñakiren Omenezko 23. Pilota Txapelketako finala San Andresen eta partidu borrokatu baten ostean, Jokin Arrillagak eta Unax Sudupek jantzi zituzten txapelak. Ostean, txapelketan parte hartu duten pilotariek eta partidura batu ziren pilotazaleek argazkia atera zuten elkarrekin Jokin Oregik margotu duen mural erraldoiaren aurrean. Antolatzaileek azaldu dutenez, muralaren bidez pilota txapelketak egin duen ia mende laurdeneko ibilbidea omendu nahi izan dute, presoen dispertsio politika amaitu izana ospatu eta Asier Heriz eta Iñaki Saez oroitu. Horrekin batera, San Andres auzoari ere egin nahi izan diote ekarpena, auzoko pertsonetan oinarrituta dauden pertsonen irudiak txertatuz. "Espektakularra", iritzi zion auzotar batek murala ikusi zuenean eta nago, txapelketaren ibilbideaz ere gauza bera esan daitekeela.





"Jai parte-hartzaileak" helburu

HERRITAR "DENONTZAKO JAI PAREKIDEAK" ANTOLATZEN AHALEGINDU DA UDALA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA EGOITZ UNAMUNO LOIDI

Eguaztenean, uztailaren 24an hasi eta zapatara arte, uztailaren 27ra arte, ospatuko dira aurten herriko jai nagusiak.

Ohi denez, kanoikadarekin iragarriko da jaien hasiera, 19:00etan. Bertan izango dira mikeletez jantzita Frantziska Iraolagoitia eta Sergio Mari Zabala koinatuak eta baita urte luzeetan kanoia prestatzeaz arduratu diren danborradako hainbat kide ere.

Danborradakoak pregoilari

Kanoikadaren aurretik, pregoia esango dute aurten pregoilari izango diren danborradako ordezkariak. Segidan, *Artillero* pieza joko dute udaletxeko balkoian.

Behin jaiei hasiera emanda, herritarren eta bisitarien esku egongo da gozatzea, Udala "jai herrikoi eta parte-hartzaileak" antolatzen ahalegindu baita, Maite Quintanilla Kultura zinegotziak nabarmendu duenez.

Ekimen parte hartzaileak

"Urtean zehar gunez gune aritu gara jaiak antolatzeko urratsak ematen, Haur eta Nerabeen Kontseilutik hasi eta parte-hartze prozesu herritarreraino". Gaineratu du horren adierazle dela "herri-eragile mordoa" dagoela "antolaketan zein ekintzetan". Herritarren parte-hartze hori, aldeztu aurretik



lazko kanoikadaren ostean herritarrek zubian, elkarri gaseosa eta bestelakoak botatzen.

ez ezik, jaietan bertan ere lortu nahi du Udalak eta hori bultzatzen duten ekitaldiak antolatu dituzte. "Kantu-jira, herri-bazkaria, txapelketa herrikoiak, Larrain Dantza, buruarin tailerra... Halako ekitaldiak ez dira jarri eta ikusteko bakarrik, herritarra ere partaide bilakatzen dute", esan du.

Parekidetasuna

Bestalde, parte-hartzaileak ez ezik, jaiak parekideak izateko ahalegina egin dutela ere

UDALAK JAIETAKO KUADRODUN ZAPIAK ATERAKO DITU "SORALUZKO JAIK" MEZUAREKIN

azpimarratu du udal ordezkariak. "Horri garrantzia eman diogu Jai Batzordean. Parekidetasuna bultzatzeko ekitaldiak antolatu ditugu, emakumeen pilota txapelketa, zumba eta abar, adibidez. Horrez gain, eraso matxistarik balego barne-protokoloa landu dugu Jai Batzordean eta ostalariekin, eta indarkeria matxistari eta sexualitateari buruzko Gune Morea izango da". Bestalde, elkarren zaintza erdigunean jartzeko mezua ere helarazi du, "jaiak denontzat izan behar dute guztiok jaietz gozatzeko", dio.

Azkenik, esan du zupia ere atera duela Udalak, kudroduna, Galtzagorriekin adostuta, *Soraluzeko Jaiak* mezuarekin: "Helburua da herri identitatea erakustea denok zapiak jantzita".

Herriko taldeen ekarpena

MUSIKA, DANTZA ETA ARTISAUTZA EKARRIKO DUTE HERRIKO ELKARTEEK

TESTUA ETA ARGAZKIAK UBANE MADERA

Lehen egunetik azkeneraino, egunero izango da herriko taldeen zein elkarten partaidetza jaietan. Lehen egunean, kanoikadaren ondorengo tradiziozko kalejira Galtzagorrien txarangaren eskutik izango da.

Musika eta artisautza

Hortik aurrera, Soraluzeko Txistulariek zein Gaiteroek hartuko dute lekukoa. Hala, egunean zein zapatuan, goiz-eresia egingo dute txistulariek (10:00). Gaiteroek, berriz, diana joko dute bariku goizeko zezenaren aurretik zein zezenean (07:00) eta zapatu arratsaldean, buruarin tailerraren geroko kalejira alaituko dute. Musika kontuak borobiltzeko, barikuan, Soraluzeko Musika Eskolako



Larrain Dantza.

triki-pandero taldeko neskek kalejira egingo dute herrigunean (12:30). Bestelakoen artean, azoka ipiniko dute herriko artisauek, egunean, Zubi Nagusian, 10:30etik 14:30ak arte. Bost

artisauek parte hartuko dute: Cristina Albisuak, Txaro Fernandezek, Julen Mendikutek, Maite Iñurrietak eta Nuria Murok.

Bestalde, kantuak ere izango du lekua, eguaztenean, Plaentxia Kantuanek Kantujira egingo baitu. Ohiko kantu tradizionalekin batera, jaiekin lotutakoak ere abestuko dituzte, *Zezenak dira*, *Plazentziatarrik zeruan* eta abar. 13:00etan egingo dute lehen kantua Itxaropenan eta hortik aurrera kalerik kale ibiliko dira.

Dantza ere bai

Azkenik, dantzarako aukera ere izango da Urrats Dantza Taldearen eskutik. Barikuan, Plaza Zaharrean, Larrain Dantza egingo dute (20:00). Animatzen den edozeinek egin dezake dantza.

Zezensuzkoa kalerik kale ibiliko da barikuan

Umeek eta gazteek proposatuta, aurtun zezensuzkoa bueltatuko da jaietara. Barikuan, 23:00etan irten eta 20 bat minutu iraungo ditu, hari eta bolbora agortu arte. Bi zezen ibiliko dira, bata bestearen ondoren. Egoitz Unamunok eta Igor Akarregik erabiliko dituzte. Udaletik jantzi aproposak janztea gomendatu dute, "sua erraz hartzen ez dutenak".



Zezensuzkoa 2019an.

Jai beteak ume eta gazteentzat

EGUAZTENETIK ZAPATURA, EGUNERO IZANGO DA EURENTZAT ZERBAIT

TESTUA: UBANE MADERA

Gaur, uztailak 19, zabalduko dituzte Erregetxeko barrakak, aurtan, La Olla preziatua ere bueltan dela. Harekin batera izango dira auto-txoekak, ohe elastikoa, txiki-parkea, zezentxoak, tiro-pitxoia, ahatetxoen arrantza eta txurrodenda. Uztailaren 28ra arte egongo dira barrakak Erregetxean. Hain justu, egun horixe izango da Umeen Eguna eta merkeago jarriko dituzte atrakzioak, buelta batek 1,5 euro balioko du. Gainerako egunetan, berriz, bidaia batek 2,5 euro balioko du, 3 bidaia 6 euro eta 6 bidaia 10 euro.

Eskaintza zabala

Barrakez gainera, umeendako zein gazteendako eskaintza zabala izango da jaietan, egunero antolatu baitute haiendako zerbitzuak. "Orain arte, ezer gutxi egon da gaztetxoentzat eta horrexegatik antolatu dugu zerbitzuak eurendako bereziki; horrela, kontseiluko proposamenei helduz, ume eta gazteen gustuko gauzak antolatu ditugu", esplikatu du Maite Quintanilla Kultura zinegotziak.

Adibidez, lehen eta azken egunean, LH5etik DBH4ra bitarteko gaztetxoek bi txapelketa izango dituzte, tortilla lehiaketa eguzten goizean eta herri-kirol txapelketa, berriz, zapatu arratsaldean. Horrez gain, jaien



Ume kuadrila La Ollaren aurrean, orain dela urte batzuk.

bigarren egunean egingo den azeituna-hezur jaurtiketa adin gutzietarako denez, hor ere parte hartzeko aukera izango dute.

Tortilla eta herri-kirolak

Patata tortilla lehiaketari dagokionez, bi maila izango dira, LH5-6tik DBH1. mailara arte A maila izango da eta taldeek heldu batek lagunduta parte hartu beharko dute eta DBH2-DBH4. mailara arte B maila. 16 su daude erabilgarri, beraz, talde kopuru horixe da

ZABALIK DAUDE IZEN-EMATEAK HERRI-KIROL ZEIN PATATA TORTILA TXAPELKETETARAKO

partaide-muga. Izen-ematea udaletxean egin behar da eta zabalik dago.

Herri-kirol txapelketari dagokionez, berriz, zapatuan izango da, 17:00etan, frontoian. LH5-DBH4ra bitarteko bosnako taldeek parte hartu ahal izango dute, hemen ere bi mailatan, LH5-DBH1 eta DBH2-DBH4. Bost probatan lehiatu beharko dute: zaku lasterketa, sokatira, giza-probak, lokotx bilketa eta txingak.

Ikuskizunak

Bestelako ekitaldien artean, ume-gazteendako ikuskizunek ere izango dute tartea jaietan. Uztailaren 25ean, eguna, Txantreako Konpartsen erraldoiek eta kiliekiek beteko dituzte kaleak eguerdian. 17:00etan, berriz, Eidabe konpainia Plaza Zaharrean

aritu da *Gora Bihotzak* saioarekin. Kantak, dantza, besarkadak eta musuak goraiapatuko dituzte, umeak zein nagusiak dantzara eta kantura erakartzeko. Eta, noski, ezin aipatu gabe laga, gauean, Oihan Vegak sutan jarriko duela plaza disko festarekin.

Puzgarriak, krosa...

Jaiak borobiltzeko, barikuan, puzgarri-parkea jarriko dute frontoian goizez zein arratsaldez, puzgarri handi eta ikusgarriekin.

Eta zapatuan, goizean, Plaza Zaharretik abiatuta, krosa izango da 2-16 urte bitartekoentzat. Aurten, adin-muga luzatuta (orain arte zen LH6), gazteei ere aukera emateko. Eta goizez ere, baina Plaza Berrian, logika eta trebetasun jolasak izango dituzte, Puzzlekaxa proiektuko taldekideen eskutik. 3D inprimagailuarekin egindako puzzleak eta beste zenbait buru-hausgarri izango dira. Azkenik, zapatu arratsaldean, bestelako udalerrietan oso arrakatsua izaten ari den buruarin tailerra izango da.

KROSAREN ADIN-MUGA 2-16 URTE ARTERA ARTE LUZATU DA, GAZTEEI ERE AUKERA EMATEKO



Umeak eurek egindako buruarinekin. KRONIKA.EUS

Buruarin tailerra txikienendako

Jaietako azkeneko egunean, zapatuan, HH4tik LH2ra bitarteko umeendako buruarin tailerra izango da Plaza Berrian 17:30ean.

Hernanitik etorriko diren Gorka Olazabal eta Oihana Aristegi buruarinetan adituek gidatuko dute ekimena. Olazabalek kontatu duenez, bi ordutako familia tailerra izango da eta buruarinak hasieratik bukaerara egingo dituzte umeek. Tailerrera izena ematerakoan, partaide bakoitzak aukeratuko du egin nahi duen buruarina eta amaitzean, etxera eramango du. "Ume bakoitzak zer egin nahi duen jakinda, puzzle bat izango bazan moduan eramaten ditugu buruarinak, eta, umeak muntatzen joaten dira; eskulanetan abila ala hutsala izan, buruarina aterako da esandako irizpideak jarraituta", esplikatu du Olazabalek. Xehetasunen arabera, 16 buruarin modelo daude aukeran. "10 dira, nolabait, Euskal Herrian dauden buruhandietatik sortutakoak, pailazoak, deabru berdea, gorria, vikingoak... Eta gainerakoak dira fruta eta barazkietan oinarritutakoak. 4 urtetik gorako haurren artean izugarritzko arrakasta izan dute azken horiek. Adibidez, Eskoriatzako tailer batean 19 piña egin zituzten", dio Olazabalek.

30 partaiderendako lekua egongo da tailerrean. Izena aldeztu aurretik eman behar da udaletxean -zabalik dago- eta zozketa egingo da parte hartzeko. Dena den, tailerra bete eta interes handia egongo balitz, jaietako beste egun batean ere eskainiko da tailerra. Tailerraren amaieran, kalejira egingo dute buruarin guztiek eta herriko buruhandiek, herriko gaiteroek musikatuta.

Gastronomiak ere bere lekua

LEHIAKETAK, BAZKARIAK ETA DASTAKETAK EGINGO DIRA

TESTUA ETA ARGAZKIAK UBANE MADERA

Jaietan, gastronomiari ere egingo zaio leku nabarmena. Aurten, tradiziozko bakailao lehiaketari, gazteen tortilla lehiaketa gehituko zaio. Ez dira faltako bateko edo besteko herritarren bazkariak. Eta askok oso preziatua duten beste ohitura bati ere eutsiko zaio, eguenetik domekara, eguneroko partituko baitute salda eta txorizoa anbulatoriopean, 11:00etan. Ibai Eder, Batzokia eta Mahastia elkarte gastronomikoak arduratuko dira zeregin horretaz.

Eskualdeko gazta eta sagardoa

Horrez gain, aurten ere, eskualdeko gaztaz eta sagardoaz gozatu ahal izango da, Debabarreneko Gazta Dastatzean. Eguenean izango da ekitaldia, 12:00etan, aurten,




Munduko arrozak iaz.

Plaza Barrixan. Hiru gaztandegik eta sagardotegi batek osatuko dute eskaintza. Gaztandegiak honakoak dira: Soraluzeko Egotza (ahuntz-gazta) Elgoibarko Mausitxa (ardi-gazta) eta Mallabiko

Axeleku (behi-gazta). Sagardoa, berriz, Elgoibarko Lizagasar Sagartokixarena izango da. Txartel batekin -3 euro- hiru pintxo eta nahi beste sagardo kontsumitu ahal izango da. 12:00etatik aurrera izango dira zubian.

Soraluzeko Arrozak

Uztailaren 27an, berriz, horrenbeste jende erakartzen duen Soraluzeko Arrozak kulturarteko topaketa egingo da Zubi Nagusian. Haren bitartez, Soraluzeko hizkuntza eta kultura aniztasuna ezagutu eta munduko hainbat herrialdeetako errezetak eta zaporeak deskubritzeko aukera izango da, jai eta aldarrikapen giroan. Hain zuzen, aurten izena aldatuta dator kulturarteko topaketa hori. Ohartu dira "Munduko" hitza jartzen



KATHYA MINALLA

"Parte hartzen dudan bigarren aldia da. Peruko arroza egingo dugu, oilaskoarekin, zilantroarekin eta Peruko sekreturekin. Iaz oso ondo joan zen. Motz geratu zen arroza".



LEIRE RUIZ

"Lehen aldiz parte hartuko dut. Uxuek esan zigun herriko jendeak ere parte hartzea nahi zuela. Amaia Amor, Nagore (Ruiz) eta ni izango gara. Oraindik ez dakigu zer arroz egingo dugun".



FATIMA SOUYEH / MUNIA ELBERKOU

"Marokoko arroza egingo dugu, taldean, oilaskoarekin eta barazkiekin. Ahalduz Eskolan gabilta eta Uxuek animatu gintuen. Arroza probatzera gonbidatu nahi ditugu herritarrek".

denean, herrian jaiotakoek ez dutela askorik parte hartzen. Hortaz, batzen gaituenari indarra eman nahi izan diote: "denok gara soraluzetarrak".

Maroko, Venezuela, Peru eta Euskal Herriko 13 lagunek parte hartuko dute eta zortzi sutegi izango dira. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, "askotariko eskaintza dastatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek: arroza lurrinetan eginda oilaskoarekin (halal erakoa), arroza oilaskoarekin eta zilantroarekin, arroza barazkiekin, arroza arrain eta mariskoarekin, "chicha" edari gozoa...Egongo da aukera glutenik gabekoentzat, barazkijaleentzat eta halal erara jan behar dutenentzat".

Batubaroa batukada

Parte hartzaileak 11:00etan elkartuko dira Zubi Nagusian eta bakoitzak bere txokoa, arroza prestatzeari ekingo dio. 13:00etan, arrozek azken ukitua hartzen duten bitartean, musika ikuskizuna izango da, Batubaroa batukadaren eskutik.

Kataluniatik etorriko da batukada hori, Nerea Mendia soraluzetarra ere kide dela. Mendiak emandako xehetasunen arabera, "Batubaroa Brasilgo perkuziozko batukada talde bat da, hau da, kaleko musika egiten du. 2004an sortutakoa da eta kide kopurua beti ezberdina da, egin ditugu hiru pertsonako

ikuskizunak eta baita 25 pertsonakoak ere". Esplikatu duenez, Batubaroak jotzen dituen instrumentuak Brasilgo batukadetako instrumentuak dira, "danborrak (repenike-a, kaja, surdo-ak, tinbal-ak...) zein instrumentu txikiak (kanpaiak, shekere-ak, agogo-ak...)".

Palestinarekiko elkartasuna

Azkenik, 13:30ak aldera izango da zubian egindako arrozak dastatzeko aukera. Tiketak erosteko txokoa Gaztetxe parean egongo da, bi euroan salduko dute.

Bestalde, antolatzaileek jakinarazitakoaren arabera, Palestinarenganako elkartasuna erakutsiko da ekimenean.

Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarateak, Zabaltzen-Sartu Kooperatibak eta Soraluzeko Udalak antolatu dute Soraluzeko Arrozak.

MAROKO, VENEZUELA, PERU ETA EUSKAL HERRIKO 13 LAGUNEK EMAN DUTE IZENA ORAINGOZ

13:00ETAN, KATALUNIAKO BATUBAROA BATUKADAK SAIOA ESKAINIKO DU

Herri bazkaria bueltan

Aurten berreskuratuko den herri-bazkarian 200 lagunendako lekua izango da. Eguenean izango da, 15:00etan, frontoian. Txartelak dagoeneko salgai daude Iratxo goxo-dendan, 15 euroan langileendako eta 10 euroan langabeendako, pentsiodunendako eta umeendako.

Inklusiboa

Aurten hiru menu izango dira aukeran, Maite Quintanilla Kultura zinegotziak esplikatu duenez, "menu ahalik eta inklusiboenak eta orekatuenak eskaintzen ahalegindu gara, intolerantziak, alergiak eta kultura eta sinesmenak kontuan hartuta".

Osteko giroa

Bestalde, bazkalostea girotzeko bingoan jokatzeko aukera izango da eta umeendako txokoa, ikas bidaiakoen eskutik. Horrekin batera, musika ere izango da, Txantreako gaiteroen eskutik.

Gazteen txosnagunea indartsu

KONTZERTUAK, BAZKARIA ETA JOKOAK ANTOLATU DITUZTE ZUBIAN

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

Jaietako guneen artean jendetsuenetakoa Zubi Nagusia izaten da. Galtzagorrixen Jai Batzordeak kontzertuetarako taula eta txosna bertan jarri eta ekitaldiz elikatzen ditu jaietako egunak, batik bat, musika oinarri duten kontzertu eta ikuskizunekin.

Txapliguarekin, txosna zabaldu

Gazteak inor baino lehen murgilduko dira jai-giroan, eguaztenean 12:00etan, txapligua jaurtiko baitute zubiko iturritik. Ordutik aurrera, egun intentsua izango dute.

Txapligua jaurti eta segidan zabalduko dute domekara arte bertan izango den txosna. Egunero, goizaldera arte izango da hura zabalik, eguaztenean eta zapatuan eguerditik aurrera; eguenean, 19:00etatik aurrera, eta, barikuan, 18:00etatik aurrera.

Gazteen bazkaria

Galtzagorrixen lehen egunarekin segituz, txosna ireki eta Gazte Bazkaria iritsi bitartean, karpotea egingo dute. Iaz, kalejira deigarria egin zuten, ehundik gora gaztek parte hartuta.

Hain justu, 15:00etan dute mahaiaren bueltan esertzeko hitzordua. Gazte Bazkarirako tiketak salgai daude Iratxo goxo-dendan 10 euroan -zapi eta guzti- eta 150 gazterendako lekua izango da. Martitzenera



Galatzagorrixak Jai Batzordea txosna aurrean, iaz.

arte erosi ahal izango dira txartelak. "Tiketarekin batera zapia emango dugu, baina bestela, egunean bertan eta txosnan, salgai egongo dira zapiak hiru euroan", esplikatu dute antolatzaileek.

Bazkalostea osatzeko, berriz, iaz horren arrakastatsua izan zen Toka eta Igel txapelketa antolatu dute "nahi duten herritar guztiendako". Plaza Barrixan barik Zubi Nagusian izango da aurten.

Debagoienarren musika

Lehen eguna borobiltzeko, Galtzagorrien txarangak eta

**GAZTE BAZKARIAN
EHUNDIK GORA GAZTE
ELKARTU OHI DIRA,
TXARTELAK SALGAI
DAUDE IRATXON**

Marrasek egingo dute kanoikadaren ondorengo kalejira. Eta gauean izango dira aurtengo lehen kontzertuak. Debagoieneko hiru talde izango dira txosnagunean: Malko, Zentzu Okerra eta Kaparrak, punk-oi, rock eta rumba garrapatera estiloko musikekin.

Fan&Go-ren erromeria

Bigarren egunerako, berriz, iluntzetik aurrerako bi kontzertu antolatu dituzte. Batetik, Sheldon's Brothers talde beasaindarra, 20:00etan. Haiek akustikoan interpretatuko dituzte euskal taldeen abestiak. Bestetik, gaua erreserbatu dute urtez urte kalerik egin gabe etortzen den Fan&Go talde zarautzarrarendako. "Haien lagun egin ginen aspaldi", esplikatu dute horrenbeste urteetako harremanaren harira galdetuta.

Eibarko SOBA Kolektiboa

Bestalde, DJen txanda hirugarren eta laugarren egunetan iritsiko da. Barikuan, DJ SOBAREN eskutik. SOBA Eibarko kolektibo bat da, Eibarko eta inguruko artistak ezagutarazten saiatzen den kultur elkarte. Haien helburua artista horiei espazio bat eskaintzea da, bertan proiektuak, ekitaldiak, jarduerak... eta bestelakoak garatu, asmatu eta gauzatu ditzaten. Herriko artearekiko interesa duten pertsona guztientzako topagune kulturala izatea ere bada haien xedea.

Etxepe eta beste

Jaiak borobiltzeko, zapatuan, arratsaldean hasiko dira motorrak berotzen, 16:00etatik-

18:00etara DJ Azken Erromantikoen txanda izango baita. Antolatzaileek esplikatuakoaren arabera, "musika rock inglesa -The Clash, Oasis, Sex Pistols...-, eta 1980-90eko hamarkadako euskal musika pintxatuko dute. Vallecasetako jaiak ixten egon dira, La Karmelako jaiak".

Eta jaietako azken gauean, 23:30ean hasi eta goizeko ordu txikiak arte iraungo duen kontzertua eskainiko dute hiru taldek. Xehetasunen arabera,

HIRUGARREN ETA LAUGARREN EGUNEAN, BERRIZ, DJAK IZANGO DIRA, BAITA ETXEPE ENTZUTETSUA ERE

atzeritik Partiperes etorriko da, haren ondoren Etxepe entzutetsua igoko da taula gainera eta gaua eta jaiak ixteaz M&M herriko musika-jartzaileak arduratuko dira.

Diruz eskas

Galtzagorrixak Jai Batzordeko gazteek hilabeteak daramatzate herriko jai nagusiak antolatzeko lanetan, egitaraua pentsatzen, txosnako txandak antolatzen eta batik bat dirua batzeko jarduerak egiten -tonbola, mus txapelketa, kontzertuak...-. Horren harira, azpimarratu dute "diru faltan" daudela. Esan dutenez, 10 urtean Udaletik kopuru berbera kobratzen ari dira, 4.000 euro, eta, bizimodua, berriz, asko garestitu da, ondorioz, taldeek gehiago kobratzen dute orain.

1978tik elkartasun bazkaria

Zubi Nagusiko txosnaguneaz aparte, tradizio luzea duen beste bat ere izango da, Plaza Zaharrean. Hura aspaldi dago muntatuta, jaien zain. Hain justu, Kanoikadaren ostean zabalduko dute txosna eta hortik eta jaiak bukatu arte, jan-edan eskaintza zabala izango du.

Elkartasun Txosna Taldeak iragarri duenez, txosna egunero 11:00etatik aurrera



Herritarrek elkarrekin bazkaltzen.

izango da zabalik eta gauero bokatak jateko aukera. emango dute.

Horrez aparte, aurten ere, ez da faltako haren inguruan egiten den presoan aldeko bazkaria. Tikitak dagoeneko Arranoan daude salgai, 18 euroan -12 euro prekarizatuendako- Txartelak erosteko azkeneko eguna uztailaren 21 izango da. Bazkaria, berriz, uztailaren 26an izango da, 14:30ean Plaza Zaharrean.

Hunkigarriak

TESTUA ETA ARGAZKIAK: EGOITZ UNAMUNO, EKI UNAMUNO ETA LEIRE GINEA.

Barikuan makala altxatu zutenetik astelehenera bitarte, jende asko hurreratu da San Andres aldera. Ez da harritzekoa, eskaini duten osagai sortari begiratuta: kantua, bertsoa, musika, dantza, pilota, bola-jokua, zezenak, umeentzako jolasak, jan-edana goizean hasi eta gauera bitarte, txurroak eta txokolatea... Gehitu horri auzotarren umorea eta, bereziki, jendearekiko arreta ona, eta emaitza bistakoa da: arrakasta. Arrakasta, ez bakarrik jende asko hurreratu delako, baizik eta lau egun horiek momentu eder eta hunkigarritz bete direlako, auzotarren, herritarren eta artisten oroimenean gelditu direnak. Jai onak egiteko gauza asko izan behar dira kontuak eta San Andresen badakite zer edo zer horretaz. Aupa San Andres!





GUTUNAK

1978. urtetik jaietan elkartasun keinua

LARRAITZ LAKUESTA DE LA FUENTE ELKARTASUN TXOSNA BATZORDEA

Elkartasun berbian pisua...78. urtetik jaietan lanian. Ikastolia zanan leihopetik gaur egungo Plaza Zaharreko bazterrera. Lau ohol eta bidoi haundixekin, itxiera bariko txosna eta bertan lo-txandak egitten... Herrixari jai-zerbitzua emon eta herrixak bueltan lagun preso eta errefuxiatuerei laguntasun keinua bueltan. Denbora aurrera eta egituran hobekuntzak; sukaldia, barra egonkorra eta itxituradun txosna edarra. Egunetako lan gogorra, muntaia eta dakarren lan txiki-haundi piloa. Txandak, tortillak, bokatak, traguak, pegatak, bazkari herrikoia... desmuntaia eta garbiketak... izerdi eta buruhaustiak...

Gaur be, euskal presoek eskubidiek urratuak izaten jarraitzen duten honetan, lanerako gogoz gatoz:
- 24an. Kanoikadaren ostian txosna zabaltzia.
- 26an. Presoen aldeko herri bazkaria. 14:30ean. Tiketak, Arranoan salgai. Eskuratzeko azken eguna: uztailak 21.
- Txosna egunero 11:00etatik aurrera zabalik eta gauero bokatak jateko aukera.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Zer duzu gustukoen jaietan?

Jaiak aukera asko eskaintzen dituzte aisialdirako eta gozamenerako. Bakoitzak du bere ekitaldi kuttuna.



**MARIA JESUS
ARRIZABALAGA**

"Orokorrean dena. Gehien danborrada, hori bai, oso polita delako eta etxeokok parte hartzen dutelako ere bai. Zezenak ere gustuko ditut, baita kontzertuak ere, klasikoak, ez zarata ateratzen dutenak, jotak ere bai, Larrain Dantza, Plaentzia Kantuan... dena."



**OIHAN LARRAÑAGA
AGIRRE**

"Niri gehien gustatzen zait gauean irtetea eta lagunekin egotea. Gazte Bazkarira, adibidez, joaten naiz. Horrez aparte, zezena ere oso ondo, eta bestela, bueltak ematen ibiltzen gara. Jaietan hemen egoten gara eta kanpoko lagunak ere etortzen dira".



**OSVALDO FRANCISCO
TELLO ENCINAS**

"Niri egoten den giroa gustatzen zait, nire herria delako. Ekitaldien artean, berriz, gehien zezena. Lehen irteten nintzen, orain ez. Bestalde, lehen igual istripu gehiago izaten ziren. Zezenak gustuko ditut sortzen duten emozioarengatik".



**NEKANE USOBIAGA
MORO**

"Zezenak ez, behintzat, horiek ez zaizkit gustatzen. Bestela, ba akaso, gehien danborrada gustatzen zait. Hemen ohiturazkoa delako eta herritar askok parte hartzen dutelako dut gustuko".

PUNTUA



ALBERTO INURRIETA

Baraua

Baraua da denbora jakin batean elikagai solidorik edo likidorik nahita ez hartzea, eta hori batzuetan onuragarria izan daiteke osasunerako. Haurtzaroan ezagutu genuen, baraua hileko lehen ostiralean egitea zela ohitura baina hau ez genuen lotzen osasunarekin; erlijio sinesmena zen eta guk ezagutu genuena haragirik ez jatea zen, batez be. Mulsulmanek ere badute bere Ramadan garaia, ia hilabetean zehar jan barik egotea suposatzen duena eguzkia ezkutatu arte.

Baina zergatik instalatu dute Erljio handiak ohitura hori beren jarraitzaileen artean? Ba, festak ezarri dituen bezala. Festak jan-edan ugariarekin lotzen ditugu eta gehiegikerien ondoren gorputzei atsedena eman beharrean izango gara, horretan datza baraualdiaren zentzua.

Gaur egun, ikerketa mediku ezberdinek erakusten digute gorputzari atsedena ematea, jatekorik eman gabe egotea, neurri osasuntsua bilakatzen dela, erregulazio prozesuak martxan jartzen dituelako. Gorputzak erregulatzeko duen jokaera mugimendu naturala da, gure barrua aspirazio horretan bizi da.

Baraualdian autofagia prozesua ematen da eta honek onura ugari ditu osasunerako. Metabolismoa erregulatu du, gaixotasunetatik babestu eta zahartzearen aurka babesten gaitu ere.



Bueltan da danborrada, biziberrituta

Ekainetik entsegutan ibili ondoren, azken prestaketak egiten ari dira Nagusien Danborradan. Jantziak banatu dituzte, konpainien antolaketak eta bestelakoak findu eta uztailaren 23an dute entsegu nagusia, banda eta guzti. 2018an agur esan ondoren, 2024an bueltan da danborrada, jendetsu eta indartsu.

Testua: **Ubane Madera.**
Argazkiak: **Fernan Oregi.**

Sei urteko etenaldiaren ondoren, aurten, berriro ere herriko kaleak beteko ditu Nagusien Danborradak uztailaren 25ean, Santiago Egunean. Aurten, 151 lagun izango dira partaide, bederatzai konpainiatan banatuta. Perkusioa jotzen lau konpainia (gudari urdinak eta gorriak eta sukaldariak eta gozogileak) joango dira, bi konpainia danborrak jotzen eta beste biak barrilak jotzen. Haiekin batera, beste lau konpainia daude gremioak irudikatzen: arrantzaleak, kajeruak, gastadoriak, ehiztariak, aparejeruak, kanoinistak, agintariak eta mikeleteak. Azkenik, 2018an ez bezala, kantinerak ere izango dira aurten. Eta horietako bik zaldi gainean eramango dituzte banderak, Ikurrina eta Soraluzekoa.

Zuzendaria, Lehen Barrila eta Lehen Danborra

Eskarmentu handiko hiru lagunek gidatuko dute danborrada. Zuzendari nagusia Unai Larreategi izango da, Luis Urizar, berriz, Lehen Barrila izango da eta Danbor Nagusia Abel Olaizola, hirurak ere, danborradan urte luzez ibilitako herritar ezagunak.

Danborradak egingo duen ibilbidea bera ere ezaguna izango da, baina nobedade pare bat izango ditu.

Ordubete lehenago

Batetik, ordutegia, 22:00etan hasiko baita, ohi baino ordubete lehenago, eta, 00:00etan bukatuko da. "Udalak eskatu digu



aurreratzeko, gero gaztetxoendako Oihan Vegaren kontzertua dago eta gazteendako beranduegi ez egiteko eskatu digute ordua aurreratzeko. Aurten probatu egingo dugu eta ea jendeak zein harrera ematen dion ordutegiari. Egia esan, jendea errezelo nahikoarekin dago, diote goizegi dela afaldu eta danborradara joateko, baina ikusiko dugu”, esplikatu dute antolaketatik.

Atxurin, Plaza Zaharrea eta Zubi Nagusia

Kontuak kontu, Txurrukenetik 22:00etan abiatuta, hiru geldialdi nagusi egingo ditu danborradak. Lehena Atxurin, Mesedeetako egoitzako bizilagunek ere gozatu ahal dezaten. Handik, aurrera egin eta Zubi Nagusitik sartuko da erdigunera eta Plaza Zaharrea egingo du bigarren geldialdia, luzea, hainbat kanta jotzeko. Gero Gabolatsetik Cañonesera joango dira eta hortxe du danborradak bigarren berritasuna, hango aterpe berria, SAPAKoa estreinatu eta bertan egingo baitute deskantsua. Atsedean hartuta, errepidetik Zubi Nagusira joko dute berriro eta zubian emango diote amaiera, azken jardunarekin.

Ibilbidean, 10 pieza interpretatuko dituzte: *Pantxika, Debako Martxa, Zezenak dira, Txokolo, Sekula ere, Donostiako Martxa, Diana, Tatiago, Iriyarena* eta *Artillero*. 36 musikari joango dira danborradarekin, Sorluzeko Musika Eskolako Domentx Uzinengidari zapean jardungo dute, gehienak Sorluzekoak bertakoak dira, baina izango dira ere Bergaratik, Arrasatetik, Ermutik eta Eibartik errefortzu modura etorriko direnak.

Danborradaren entsegua frontoian, orain dela bi aste.

Konpainiak

- Mikeleteak
- Kantinerak
- Agintariak
- Arrantzaleak
- Gudari urdinak (danborrekin)
- Gudari gorriak (barrilekin)
- Gozogileak (danborrakin)
- Sukaldariak (barrilekin)
- Sukaldariak (ez dutenak jotzen)
- Aparejeruak
- Ehiztariak
- Kanonistak
- Kanoiarekin doazenak

"Giro ona ikusten da danborradan"

NAROA ROS ETA RAQUEL RAMIREZ DANBORRADAN HASIBERRIAK

Naróa Ros Gil gaztea (Soraluze, 2006) gozogilea izango da Nagusien Danborradan, danborra jotzen arituko da. Raquel Ramirezek, berriz, (Bolivia, 1980) barrila joko du, gudari gorri modura irtengo da bera. Biendako danborrada baten (umeenean zein nagusienean) parte hartuko duten lehen aldia da.

Zelatan animatu zarete danborradan parte hartzera?

N.R. Nire lagunak apuntatu zirelako, eurekin joatearren. Egia esan, danborradak ez nau inoiz deitu, baina aurten animatu egin naiz. Ez naiz



akordatzen ezta inoiz ikusi izan dudarik ere jaietan.

R.R. Niri beti gustatu izan zait asko. Jaietan ere ikusita daukat eta parte hartzeko gogoá nuen. Txokon ikusi nuenean parte hartzeko deialdia, Libia lagunari esan

nion eta begira, biok apuntatu gara.

Zelan ikusi duzue orain artekoa?

N.R. Nahiko ondo. Ez zait horren zaila egin jotzen ikastea, pentsatzen nuen zailagoa izango zela.

R.R. Ondo. Giro ona ikusten da. Gaur, adibidez, kanten letrak banatuko dizkigute, nik ez dakit euskaraz, baina, sikiera, melodia ikasteko balioko didate.

Jaietako saiorako gogotsu zaude?

N.R. Bai, zerbait desberdina egitearren.

R.R. Apur bat urduri nago, baina bueno, nahiko ondo. Hori bai, espero dut egunean bertan ni ez izatea barrila garaiz kanpo jotzen duen hori.

"Emakume piloa etorri da"

LUIS URIZAR DANBORRADAKO BETERANOETAKOA

1997an danborradan hasi eta 2001etik, hura antolatzen ibili da Luis Urizar (Soraluze, 1958), 2018an laga zuten arte, antolaketako erreleboa hartzeko ez zegoelako inor. Antolaketan ibiltzeaz aparte, Lehen Barrila ere izan da urte luzez eta, aurten ere, halaxe dihardu, barrilen gidari.

17 urtez danborradan; zelan hasi zinen?

Deialdi bat egon zen. Kiroldegira joan ginen, zinera, eta han apuntatu ginen. Horrela hasi ginen jotzen, hasieran sukaldaria nintzen, baina beti barrila jotzen. Hasieran goiko eskolan



entseatzen genuen eta Eibartik etortzen ziren erakustera. Uste dut Prieto zela orduan Barrilen zuzendaria. Bizimodu aldaketen ondorioz, ni hasi nintzen Lehen Barril modura eta hemen nago orain, erakusten.

Zergatik daroazuz horrenbeste urte danborradari eusten?

Antolaketan talde oso polita geunden, lan egiteko gogoarekin eta oso ondo moldatu gara urte horietan guztietan. 2018ra arte jarraitu genuen. Baina azkenean denon bizimodua aldatu egiten da, gu Andoainera joan ginen, dena aldatu zen... eta 2018an erabaki genuen ezin genuela gehiago jarraitu.

Orain, zelan ikusten duzu danborradaren buelta?

Harrituta geratu naiz jende gazte piloa etorri delako eta azpimarratu behar da emakume piloa etorri dela. Nik uste dut hau emakumeengatik mantentzen dela. Asko daude eta gogo handiarekin, gainera.

"Musika eta parte-hartzea batzen ditu"

UNAI LARREATEGI ZUZENDARI NAGUSIA

Unai Larreategi Azurmendi (Soraluze, 1979) izango da Nagusien Danborradako zuzendari nagusia. 1999an hasi zen, barrilari moduan eta 2000n proposatu zioten zuzendari nagusi izatea. Harrezkero halaxe izan da.

Zuk zelan ikusten duzu zure burua zuzendari?

Ba oso gustura ibili izan naiz. Musika eta herritarren parte-hartzea batzen dituen ekimena da. Jaiez gozatzeko aukera ematen didan ekimen eta ardura bat da.

Zer da danborradan egiteko zailena? Eta, berriz, gustagarriena?



Batetik ardura handiarekin bizi dut zuzendari izatea, horrek eskatzen dit danborrada aurretik abestiak ondo barneratzea eta bertan egunean tentsio puntuarekin bizitzea ekimena. Hala ere, disfrutatzea ere lortu izan dut.

Hori bai, bukatutakoan lasaitu ederra hartzen dut.

Zuzentzeko piezarik zailena? Eta gustukoena?

Antzekoak egiten zaizkit piezak zailtasun aldetik. Herriko abestiak bereziak dira, baina onartu beharra daukat *Debako martxa* dudala gustukoena.

Zelan ikusten duzu aurtengo danborrada?

Ederra izan da ikustea gazteak nola inplikatu diren ekimenean. Ondorioz, nik uste bizi eta gozagarria izango dela.

Noiz arte izango zara zuzendari?

Ni gustura nabil, baina ez daukat zuzendari gisa betikotzeko interes berezirik. Aurten ere antolatzaileei esan nien aldatzea nahi duten momentuan planteatzeko lasai.

"Gogo handiz egingo dugu"

LIERNI ELIZBURU ETA JULEN MUGURUZA BANDERADUNAK

Lierni Elizburu (Soraluze, 1995) eta Julen Muguruza (Soraluze, 2004) izango dira aurten zaldi gainean joango diren danborradako banderadunak. Biak ala biak lehenago ere ibili izan dira danborradan, umetan zein gaztetan.

Zeinek eramango du zein bandera?

L: Oraindik erabakitzeke dago, baina igual nik Ikurrina eramango dut eta Julenek Plazentziako bandera.

Zergatik zarete zuek banderadunak?

L: Nire kasuan, nik nahi nuen izan eta antolaketa nagoenez, ba abantailatxo



hori (barre). Gero pentsatzen egon ginen, berdintasunaren alde, neska batek eta mutil batek eraman beharko lituzketela danborradako banderak, Juleni proposatu genion bat eramatea eta baietz esan zuen.

Julen, zuri ere ilusioa egiten dizu banderadun izateak?

J: Bai, ilusioa egiten dit, noski. Urtea askoan, txikia nintzenean, zaldi gainean zihoazen bi pertsona horietako bat izatea espero nuen. Nire amamak eta aitaik zaldi gainean ikustea da ilusioa egiten didana. Gogo handiz egingo dugu, bai Liernik baita nik ere.

Datorren urtean ere izango zarete banderadun?

L: Ez gara gu beti izango banderadunak. Aurten gu izango gara, baina datorren urtean beste norbaitek nahi badu izan, etor dadila lasai eta esan dezala. Gure ilusioak beteta geratuko dira aurten eta horrekin nahikoa.



Ane Osoro, Lierni Elizburu eta Ines Lascurain danborradaren entsegu batean.

"Politena da jendearen ilusioa eta harrera ikustea"

INES LASKURAIN, LIERNI ELIZBURU ETA ANE OSORO DANBORRADA KO ANTOLATZAILE BERRIAK

Lierni Elizburu, Ane Osoro eta Ines Laskurain iaz hasi ziren Nagusien Danborrada berreskuratzeko lanean. Bidean, bost antolatzaille beterano ere animatu dira laguntzera, Alberto Errasti *Pibe*, Roberto de la Rosa *Fugas*, Joseba Barrutia, Itziar Agirre eta Aitor Santiago. Asteotan buru-belarri ari dira azken prestaketak egiten.

Dena dago gertu? Kanoia, ogia, astoa...

Kanoia oraindik ez dugu probatu, baina gertu egon beharko litzateke, hori azkeneko astean probatzen dute hauek (*Fugas*ek-eta). Ogi erraldoia izango dugu, Mendizabal okindegiaren eskutik, Iñarra harategiko hirugiharraz edo txorizoaz beteta joango da eta indioilarra ere badugu, aurtan, Okelia

haretegiak lortutakoa, 17 kilo baino gehiago ditu. Eta tradizioari eutsita, Eibarko "asto funtzionario" *Pantxika* ere izango da danborradan.

Zelan ikusten duzue aurtengo danborrada?

Badoa itxura hartzen. Jendearen harrera oso ona da. Ez genuen espero horrenbeste jende apuntatzerik eta azkenean 151 apuntatu dira, tartean, gazte asko, berri asko, eta hori ona da. Danborradari erreleboa eman nahi badiogu, jende gaztea mantentzea behar dugu bestela berriro ere bukatuko da hau, beraz, saiatu behar gara jende gazte hori gustura mantentzen.

Zelan joan da orain artekoa?

Ondo. Orain gogorrago, gutxi falta da eta ustekabe asko ari dira irteten, baina aurrera.

Zer egin zaizue zailena?

Antolakuntza aldetik dena kontrolpean edukitzea. Aurreko antolaketa-taldeak asko lagundu arren, lehen urtea izatera, dena kontuan izatea eta dena kontrolatzea zaila da. Gainera, legeak aldatu egin dira eta horietara moldatzeko arazoak izan ditugu, beste herri batzuetako danborradei galdetzen ibili gara eta beste eurek ere lagundu digute, eta, horri esker bagoaz dena antolatzen ganoraz.

Eta politena?

Jendearen ilusioa eta harrera ikustea eta partaidetza aldetik zenbat jende apuntatu den eta ez direnak apuntatu ere kaletik esatea *zer ondo danborrada bueltatzen dela!* Horrek, behintzat, gogoia ematen du jarraitzeko eta animatu egiten zaizu lan guzti hau hartzera.

Herrikideei mezuren bat helaraziko zeniekete?

Animatu beste urte batzuetan danborradan parte hartzera eta antolaketan sartzera ere bai, lehenagoko jendea lagatzen joaten denerako jende gehiago beharko baita. Eta eskertu nahi dugu jende gazteak duen konpromisoa, entseguetara-eta ezin badu etorri abisatu egiten dute eta hori eskertzekoa da.

Beraz, datorren urtean zuek segitzeko asmoa baduzue...

Printzipioz bai. Ikusiko dugu egunean zelan irteten den, baina printzipioz bai.

"EZ GENUEN ESPERO HORRENBESTE JENDE APUNTATZERIK, TARTEAN GAZTE ETA BERRI ASKO"



IZZUGUIRRE
Igeltzeritza

Erakin berriak • Kalitateko emaitza
Erreforma • Era guztiakoko igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Etxeko Irtoak
Souflea

Armendi
Jatetxea



Tel: 943 75 10 02

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika,
puntu puntako teknologia berri
egitur dugu. Cad Cam sistema
bertutako arabilzen dugu.



Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel: 943 75 25 67
Mug: 747 42 78 79
e-mail: elizpe3@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00



Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hamburgerak,
ogitariekak,
nabak,
pizkak,
gosaia...

Entzuguak agian dira
Tel: 943 75 17 88



Kontulan

Aholkularitza fiskala • Kontabilitatea
Lan-aholkularitza • Zerbitzu juridikoa
Ticket bai • Outsourcing • Aseguruak

www.kontulan.com



FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Sorluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

Hortz klinika

Erabil 1 Tel: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Odontologoa
K.Z. 48.000.590

30 urte baino
gehiagoko esperientzia

odontologia, proteziak, ortodontzia,
odontopediatria, implantak, estetika...
Zerbitzu radiologiko onakorra (DRI)
ekianerria, ortu eta tele.




HNOS. BENITO
ANIAK
MUEBLES-ALTZARIAK

Sukaldeak, logelak, egongelak,
neurritan egindako altzariak...

Santa Ana, 26 - Tel: 943 75 20 47

MENDIZABAL
okidegia

Astelehenetik
ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00

Ogia - Prentsa - Goezarik

Larunbatak eta
igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarran 10
Tel: 943 75 13 99



MABEL
ILBEPAINBEGIA

Laser
depilazioa
Keratina
tratamendua
Solariuma



Erabil 1
Tel: 943 75 14 89



KM design

Disainueta Fabrikazio lanak

Sukaldeak
Horma-oinarriak
Logelak
Zonak
Altzak...

Arretzeria lanak oro har
Instalazioak

943 75 99 85

www.kmDesign.es

Pol. Amalago 3
BORGAA

Carpinteria
MANU
Aroztegia

Atak
Bontzak
Pantoneak
Sukaldeak
Teinak

Manuel C. Fuentes
Estazioa 8. barrera - Mug: 636 05 81 26

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

amona
dekorazioak
industriala



Tel: 943 75 13 24 - Mug: 652 77 70 30

SORALUZE
MOTOR

Mendiola ind. 13
Sorluze

676 556 817 - 943 75 21 38



Bidelagun euskaltzaletasunean






Futbitoa eta pilota frontoian

FUTBITO FINALAK ETA PILOTA JAIALDIA JAIETAKO KLASIKOAK DIRA

TESTUA ETA ARGAZKIA UBANE MADERA

Ohiko arrakastarekin ari dira egiten jaien bueltako futbito txapelketa. Maiatzaz geroztik, 9 taldek dihardute lehian, beraz, 100 lagun inguru mugitzen du ekimenak. Gainera, bi talde 17-20 urte bitarteko gaztez osatuta daude, beraz, ekimenari jarraipena emateko erreleboa badator. Edozelan ere, ez dira falta urteroko "beteranoak", Jubiletak, Salabardo, Nothingan Miedo (Aribiransa), Goenetxetxo, Drink Team...

Finalak jaietan

Liga txapelketa finalerdi fasean dago. Gaur, barikua, jokatuko dituzte partidak, 20:00etan hasita, bi: Salabardo-Jubiletak eta Nothingan Miedo-LTC. Hortik irtengo dira jaietako finalistak. Uztailaren 24an, ligako finala, kanoikadaren ondoren.

Kopa txapelketari dagokionez, finala Drink Team eta Marsorak jokatuko dute, 17:45ean.

"Aurrelari onenak"

Bestalde, kirolean, jaietako beste klasikoetako bat pilota jaialdia izango da. Aurten, Udalak eskatuta, neska pilotariak ere ekarriko ditu Soraluzeko Pilota Elkartek eta ez nolanhikoak, gainera. Izan ere, Emakume Mastercupeko bi finalistak, Amaia Aldai dimarrak eta Goiuri Zabaleta leitzarrak, lau t'erdikoa jokatuko dute. Aitor Atxotegi antolatzailearen



Futbito txapelketako final-laurdenak.

esanetan, "errebantxa moduan har daiteke" Soraluzeko partida. "Oso herri gutxitan lortu dute bi horiek elkartzea eta niri baiezkua eman zidaten. Nire ikuspuntutik gaur egungo bi aurrelari onenak dira. Beraz, oso pozik".

MAIATZAZ GEROZTIK, BEDERAZI TALDEK DIHARDUTE FUTBITO TXAPELKETAN; FINALAK JAIETAN

LAU T'ERDIKO AURRELARIRIK ONENAK IZANGO DIRA SORALUZETAKO PILOTA JAIALDIAN

Gazteak, neskak eta nagusiak

Pilota jaialdia jaien bigarren egunean jokatu da. 18:30ean, jubenilak izango dira jokatzeko lehenak. Eki Amuategi soraluzetarrak aurrez aurre izango du Eibarko taldeko Manex Gisasola gaztea. Ondoren, emakumeek jokatuko dute eta jaialdia borobiltzeko, eskuz binakakoa jokatu dute Soraluzeko elkarteko Manex Balerdik eta Aitor Atxotegik Bergarako Ander Etxanizen eta Arri Oterminen kontra. Partida parekatuta dagoela uste du Atxotegik. "Atzean Manex gehiago izango da eta aurrean Anderren gatzetasuna dago, eta neure aldetik, istripuaz geroztik ez nabil jarraipen askorekin jokatzeko, beraz, aurrean gehiago izan daitezke eurak, baina partida parekatuta dagoelakoan ipinita dago".

"Jende polita, borrokalaria eta amorratua espero dugu"

"KONEJO" ESEBERRI ABESLARIA ETA SHOWMANA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS

Uztailaren 26an eskainiko du kontzertua Los Zopilotes Txirriaos talde nafarrak. Napar-mex estiloan inspiratutako kantak taularatuko dituzte Plaza Zaharrean, ohikoa duten lotsagabekeriarekin eta umorearekin. Konejo Eseberri abeslariak ohartarazi du "arimak astintzera" datozela Soraluzera.

Zein asmorekin zatozte Soraluzera?

Arima astintzera eta piperminen ura ere edateko asmoarekin. Abestuko ditugu rantxera trauskil eta azkarrak, bihotz hautsiei eta ahaztutako bandera beltzei kantatzeko.

Denetarikoa kantak izango dira kontzertuan?

Kropotkinen seme-alabak gara, Chalino Sánchezen korridoenak, eta gure bizitza zoroa mugitzen duen guztiari kantatzen diogu. Pota usaina eta zerrautsa kulerotaraino duten taberna zaharrak. Iraultza ahaztuak porrotaren zapore mingotsarekin eta tristura gaiztoaren amildegian erori aurretik eskua ematen digun jende polit hori.

Napar-mex estilotik edan bai, baina Kojon Prieto, Tijuana... eta



"Konejo" Eseberri Urantzian.

beste hainbaten eragina ere ei duzue.

Mundu guztiak du umetan jaso duen eta hunkitu arazi duen musikaren eragina, baina inspirazioa whiskiak eta inguruan dugun jendeak ematen digute. Axola zaigun jendearen maitasuna eta mundu hau kakazten duten guztielikiko ostia txarra. Algaraka bizi gara eta gure itzalari ere barre egiten diogu, baina burua zapalduta eta lokatzetan hondoratuta duenaren ostia txarra dugu.

Oso nafarrak dirudizue...

Iratiko pagoak zein Hondarribiko kale harriztatuak

bezain nafarrak gara.

Mozkorrak eta harroak.

Hala ere, sarri-sarri zatozte Gipuzkoara eta Bizkaira...

Nafarroa Handia. Etxean gaude. **Estreinako aldia duzue Soraluzen, baina zela edo hala ezagutzen duzue herria edo soraluzetarrak?**

Ardo-bota jokatu nuke Bizkaia dela, baina mapak Gipuzkoa sakonean kokatzen du. Jende jatorra, blusa horteroak eta edateko eta parrandarako gogoia espero ditugu. Jende polita, borrokalaria eta amorratua espero dugu. Simaur eta belar moztu berriaren usaina ere espero dugu. Izan ere, gure herriek, ekonomia iraunkorraz eta bertakoen besarkadez haratago, lurean eta beren duintasunean oinarrituta egon behar dute.

2006tik taularik taula eta diskoz disko; ez dago agujetarik?

Nire herriko kanpaiak baino zaharragoak gara. Zaharrak gara, nekatuta gaude eta dohakabe baten bihotza baino hautsiago dugu eztarria. Pisu handia dute errepedeko urteek eta pilatutako botila hautsiek, baina rantxerak arima alaitzen digu. Bihotza pozez eta ostia txarrez betetzen digu. Bizia ematen digu eta barrenak mugitzen dizkigu. Eta hori da la ostia.

"Soraluze oso inportantea da eta gogotsu goaz"

JOSEBA TAPIA MUSIKARIA ETA MUSIKA-EGILEA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: JOSEBA TAPIA

Jaien lehen eguneko kontzertua Tapia eta Leturia Band taldeak eskainiko du, 23:00etan Plaza Zaharrean. Joseba Tapiak azpimarratu duenez, Soraluze "konexio oso handia" izan dute hemengo "gazte belaunaldiekin".

Aspaldi Soraluzera etortzeke.

Egia. 2007an-edo azkenekoz.

Oso polita egin genuen hura, plazatxo batean izan zen. Birritan egon gara, bestea Gaztetxeok-edo antolatuta.

Orain zelako taldea dator?

2007an gelditu ginen Leturia eta biok, iaz elkartu ginen garai bateko Tapia eta Leturiari berrikuntza emanez. 11 musikari izango gara eta garai bateko diskografiako kantuen bildumatxoa egiten dugu.

Rocka, trikitia purua... denetik?

Nik trikitixa purua ez dut inoiz ezagutu. Zikina izan zen beti, kanpotik etorritako instrumentua, gure ohitura garbiak zikintzera zetorrena eta hori ia baserri munduan bakarrik kontsumitzen zen; irratietako erreperitorioak jotzen ziren soinu handiarekin, pasodobleak-eta. Gure garaian euskal munduan



Tapia eta Leturia Band.

aldaketa handia izan zen, baserritik kalera; hor hasi zen, baita ere, euskal rocka, eta trikitia interesgarri bihurtu zen bat-batean guztientzat, nazionalismoarentzat, rockarentzat, erromeriarentzat... guri tokatu zitzaigun erdian egotea eta hasi ginen gure garaiko musikarekin nahasten. Ezagutzen genituen kanpoko esperientziak, Flaco Jimenez... Hemen Ruper Ordorika, Hertzainak... hasi ziren sartzen trikitia euren musketan eta gu izan ginen lehenak aldrebes egiten.

Zer dela-eta elkartu zarete berriro Leturia eta zeu?

Epokak izaten dira. 2007tik bakarkako lanetan nabil, 9 disko jada. Gogoia ere bai. Utzi genuenean ere esan genuen tarte bateko geldiduna izango zela. Gogoia piztu zaigu, talde potentea dugu, pieza zaharrei moldaketak egiten hasi ginen eta horrelaxe.

Eta zela doa itzulera?

Iazko abuztuan hasi ginen. Jendeak gogoratzen ditu kanta haiek eta izugarrizko festak antolatzen ditugu.

Azkenaldikoak oso politak izan dira. Elgoibarren hasi ginenean, Oñatikoa, Usurbilgoa oso potentea izan zen, Markinan ere oso giro ederra... Oso pozik gabilta, giro ederra dugu taldean eta oso animatuta.

43 urte taula gainean; oraindik sasoiko, ala?

Ba bai. Urte batzuk pasa dira, norberak ez ditu hainbeste sentitzen. Gu baino musikazaleagorik baden ez dakit, eszenatokia droga moduko bat da. Behar izaten dugu sortzen ditugun piezak jendaurrera atera erreazioak ikusteko, gure zeregin musikalean ohiko ibilbidea da. Jarraitzen dugu hasieran bezalaxe orain eta gure heriotzaren ordura arte amen.

Besterik nahi baduzu gaineratu...

Pozik goazela Soraluzera. Oso herri inportantea izan da guretzat, ez bakarrik Gaztelupeko Hotsak; horko gazte belaunaldiekin konexio handia izan dugu. Nire hasierak han izan ziren, San Andresen, Ezozin... 17 urterekin egin nuen lehen ekitaldia Lazkao Txikirekin eta Goenatxorekin, frontoirik ere ez zen han. Soraluze oso inportantea izan da guretzat eta gogotsu goaz.

"Espero dugu mundu guztia dantzan jartzea"

JULEN LEUZA GOXUA'N SALSAKO ZUZENDARI MUSIKALA, MARAKA-JOTZAILA ETA KORO-EGILEA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: GOXUA'N SALSA

Nafarroatik etorriko da Goxua'n Salsa taldea. Musikari nafarrez, kolonbiarrez eta kubatarrez osatuta dago eta saltsa estiloko musika taularatuko dute zapatuan, 22:30ean, Plaza Zaharrean. Julen Leuza zuzendari musikarekin egon gara.

Ordizia, Laguardia, Pirineos Sur, Soraluze, Aitzo... topera zabilzate! Zelan doa udako bira?

Taldea sortu zenetik hirugarren urda da aurtengoa eta taldea hasi da aktibitate handiagoa izaten. Kontzertu gehiago ateratzen dira eta poz-pozik gaude. Gure musika berria da Euskal Herrian eta hasi da funtzionatzen, eta, pozik gaude egiten diguten harrerarekin. **14 musikari zarete herrialde askotakoak; zuena kontzertu ezohikoa izango da, ala?**

Proposamen ezberdina eta berria da. Behintzat zonalde honetan. Saltsa orkestra tradizionala gara, haize sekzio handiarekin eta hiru abeslariarekin. Gurea proposamen arriskutsua da asko garelako eta taldea



Goxua'n Salsako kideak.

mugitzea zaila da baina baditu onurak ere, jendearentzat kuriosoa da eta erakargarria bihurtu da.

Urak Eginen Du Bide bigarren diskoa kaleratu duzue aurten; lehena, berriz, 2022an kaleratu zenuten. 2020an sortutako taldea izateko, geldi ez zarete egon, behintzat.

Ez ez. Lehen diskoa atera genuen bertsoekin beteta, Berri Txarrak, Gatibu, Gozategi... Hortik abiatu nahi genuen, guk ezagutzen genituen kantuen saltsa

bertsoekin. Baina oso argi genuen azkar atera nahi genuela bigarren diskoa, gure kanta propioekin, gure musika propioa garatzeko. Taldean gogoak daude, sorkuntzarako gogoak ere bai, beraz, aprobetxatu genuen. Orain, urte bat-edo ezer berririk atera gabe ibiliko gara, kontzertuak egiten eta listo.

Saltsatik abiatuta, zelako ikuskizuna ekarriko duzue Soraluzera?

Saltsa musika bai euskaraz baita gaztelerez ere, eta beste erritmo latino batzuk ere sartzen ditugu, kumbia, txa txa txa, boleroak... musika latinoa eta saltsa. Hainbat erritmo latino uztartzen ditugu.

Beste zerbait nahi baduzu esan...

Espero dugu mundu guztia dantzan jartzea. Oso pozik ibiltzen gara, ze kontzertuetan askotariko jendea agertzen da, publiko euskalduna eta publiko latino, saltsa akademietan dagoena... nahasketa multikultural hori publikoan oso pozgarria izaten da. Gipuzkoako herrietan ere ikusi dugu inoiz. Hori izaten da gauza politenetakoa kontzertuetan.

"Gogotsu gaude herritarrekin gure lana konpartitzeko"

NEREA MENDIA MARACUMBÉ TALDEKO KIDEA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: MARACUMBÉ

Kataluniatik etorriko da Maracumbé taldea. Uztailaren 27an eskainiko du ikuskizuna Zubi Nagusian. Musikan, eskarmentu luzea duten 11 lagunez osatutakoa da. Nerea Mendia soraluzetarra da kideetako bat.

Zer eskainiko die Maracumbék soraluzetarrei?

Ba nik uste ikuskizun ez ohiko bat eskainiko dugula. Kontzertu bat da baina oholtza gainean 11 musikari gara, 50 bat instrumentu (batzuk oso txikiak), mugimendu dezente dago bai instrumentu aldaketetan nahiz musikarien zereginetan, hainbat hizkuntzatan abesten dugu...ez da sarri ikusten. Gure errepertorioa ere, munduko eritmo tradizionaletatik sortutakoa da, beraz... musikaren bitartez herrialde ezberdinetatik bidaiatzeko aukera ere eman dezakegu. Brasil, Peru, México, Venezuela, Senegal, Colombia, Iberiar penintsula, Argentina... Nahiz eta ia musika guztia gugandik sortutakoa den, tradizionaletik datorrenez, oso potentzia eta



Maracumbé taldea.

indar handikoa dela iruditzen zait, azken finean, musika hauek komunitatean sortutakoak dira, herrialde ezberdin guzti horietako edozein plaza, txoko, jai, ospakizunetan, lehen-lehen sortutakoak.

Edozein adinetako herritarrendako moduko ikuskizuna izango da?

Nik uste baietz. Errepertorio berezia da. Dantzan, zutik nahiz eserita gozatzekoa.

Kataluniatik hona horrenbeste pertsona zelan animatu zarete?

Pasa den urtean Galtzagorri txarangako urteurrena

ospatzera joan nintzenean horra, Arianne Unamunok esan zidan zergaitik ez nintzen animatzen. Kulturako batzordean komentatzeko bilera egitea proposatu zuen, egin genuen, interesgarria iruditu zitzaion Maite Quintanillari eta orduan taldeari galdetu nion. Eta denak... *noski baietz!* Zelako sentipen ederra egiten dudan lana herriko jendeari interesatzen zaiola ikustea. Besarkada goxo bat bezalakoa da, aurrera jarraitzeko animatzen zaituena. Eta zelako



Maracumbé taldea kontzertuan.

aukera polita hirian sortutakoa zuekin nire herri minean konpartitzea.

Zuen erreperitorio ia guztia taldean bertan sortutakoa da, ezta?

Bai, hala da. Lehen hiru urteetan sorkuntza prozesuan bakarrik ibili ginen. Melodia, letra... Abestien oinarria herrialde ezberdinetako erritmoak dira, baina guk eraldatu egiten ditugu. Konpas aldetik edo beste herrialde bateko erritmo batekin nahastu, adibidez.

Nondik nora sortu zen Maracumbé?

Maracumbé, Batubaroa batukadatik sortu zen. Zortzi bat urte gindoazen pertsona berdinak elkarrekin jotzen eta gauza berriak sortzeko nahia sentitu genuen. Batubaroa batukadak kanpai berezi batzuk ditu "4-ko agogo-a" eta

instrumentu horrekin melodia konplexuagoak egiten hasi ginen... gero beste instrumentu batzuk gehitu genituen, baxua, gitarrak, flautak, klarinera, saxofoia, ahotsak... Orduan, oholtzako ikuskizun izatea pentsatu genuen eta beste talde bat ginela pentsatuz, izen berri bat topatu, Maracumbé!

Zelako ibilbidea izan duzue orain arte?

Su txikitan sortutako erreperitorioa denez (hiru urte eta erdi dirurik ematen ez duen sortze prozesuan egon ginen astero-astero elkartzen) urte dezente daramatzagu "bidean", bost bat gutxi gorabehera. Azken bi urte hauetan zabaldu ginen mundura. Nik lan egiten dudan antzerki elkarteak lan prozesu berezi bat egiteko aukera eman zigun, hari esker, lehen aldiz guk sortutako

"ERRITMO TRADIZIONALAK ERALDATU ETA MODERNITATEAN SARTZEN DITUGU"

abestiak eszenario batean grabatu ahal izan genituen. Kontzertu bat ere eman genuen eta arrakastatsua izan zen. Guzti horrek aurrera jarraitzeko indarra eman zigun eta beste kontzertu bat egin genuen Bartzelonan. Sarrerak agortu egin ziren eta beste arrakasta handi bat izan zen hura. Harrezkero, bestelako kontzertu batzuk ere egin ditugu eta baita bi grabaketa ere, musika estudio batean. Oso abentura polita izan da. Orain, Soraluzen eta irailean La Mercé jaian joko dugu, Bartzelonako jai nagusietan eta urrian eta azaroan beste bi kontzertu ere baditugu.

Besterik nahi baduzu esan...

Gogotsu gaudela Soraluzen herritar guztiekin gure lana konpartitzeko! Urduri ere bai, garrantzitsua delako guretzat. Maracumbé Bartzelonatik Soraluzeraino mugitzeko interesa eta gogoia ipini duten guztiei hutsik ez egitearren, hau da, gustukoa izatean ardura hori sentitzen dugu pixka bat, baina esan bezala gure desioa eta gogoia handiak dira!

ZORION AGURRAK



Irati Calles Agirre
Uztailaren 23an, 13 urte. Zorionak Irati!



Aiora Sodupe Agirre
Uztailaren 15ean, 8 urte. Zorionak Aiora!



Einar eta Afrika Mendez Goyogana
Uztailaren 18 eta 19an, 2 eta 6 urte. Zorionak familixako bi txikixerri! Jarraitxu gure etxiak poztazunez betetzen! Maitxe zaitxuegu! Patxo haundi bat danon partez!

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Jose Migel Salaberria Lizarralde
Martina Martin Martin
Jose Ramon Sousa Colmenero
Javier Sololuze Ansola

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu:

Internet

Plaentxia.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://plaentxia.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralean aldizkarian.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@pilpilean.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

OHARRAK

Ile-apaintzailea

Negabin ile-apaindegian, ile-apaintzaile ofiziala edo ileko kosmetikan teknikaria behar dute. Baloratuko da manikurak, depilazioa eta azazkalak egiten eta halako lanpostuetan esperientzia izatea eta euskaraz jakitea. Interesa duenak deitu 620711481 telefonora.

Zaintzailea

Zaintzailea behar da adineko pertsona zaintzeko. Astegunetan, goizez bi ordu eta arratsaldean beste bi ordu, eta, domeketan beste bi ordu. Lehenetsiko da herrikoa bertakoa izatea. Kontakturako telefonoa: 635441920.

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Fincas
Euskadiko Finka Administrazioaleen Lurralde Kontseia



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure etxebizitza saldu nahi dugu. Urteetan etxejabe guztiok ekarpen berezia egin dugu komunitateko kontuan, higiezia birgaitzeko obra bat egiteko. Jakin nahi nuke nire jabetzaren salmentagatik orain arte jarritako zenbateko horren banakako likidazioa eska diezaiokean administrazioari.

Finken administrazioaleak ezin dio likidazio indibidualik egin etxebizitza bat saltzen edo erosten duen jabe bakoitzari; izan ere, urteko batzar orokorrean aurkezten dira likidazioak, eta han onartu edo baztertzen dira. Hortaz, pertsona batek jabetza bat saltzen duen bakoitzean, ez da banakako likidaziorik egin behar. Pisu edo lokala jabetza zorduna edo hartzekoduna da, eta erosleak erantzun edo onura aterako dio salmentaren uean dagoen saldoari. Era berean, jabe berriak egin nahi diren obren ondoriozko etorkizuneko derramak ere ordaindu beharko ditu. Erosleak izango du kasu horretan erantzukizuna, jabe berriak. Legeak adierazi bezala, derramak uean uneko jabearen esku geratzen dira. Legea hobekuntza-obrei buruzkoa bada ere, ulertu behar da ohiko edo ezohiko gainerako derramei ere badagokiel.

ONDORIOA: Ez dago diru hori itzultzeko betebeharrrik, salerosketa bat dagoen bakoitzean. Jabe berriak onura edo kalte egiten dio pisu edo lokalaren egoerari; izan ere, diru kopuru bat alde izan dezakeen bezala, aurrekontu arruntaren kontrakoa ere gerta daiteke.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

ESKELAK

ESKELA

Jose Migel Salaberria Lizarralde

'Txakarra'

2024ko ekainaren 29an hil zen 80 urte zituela.



Aita, aittitta, gure bihotzetan izango zara beti. Maite zaitugu!

Senideak.



ESKELAK JARTZEKO: 699 86 87 29
edo eskelak@pilpilean.eus

Hil diren herritarren eskelak, oroirgarriak eta urteurrenarak argitaratzen dira aldizkarian eta Plaentxia.eus webgunean.

Tarifak (BEZ barne):

- ▶ Arrunta: 75 / Bazkideek 60
- ▶ Handia: 120 / Bazkideek 96

Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Soraluzen.



ARRANO
taberna

Etorri eta gozatu
etxeko pintxoak

Etxaburueta 6

TXURITXU-COZOTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30
Larunbatak: 08:30-13:30 eta
17:30-20:30
Igandeak: 08:30-14:30

Jai zoriotsuak opa dizkizuegu!
Tel. 943 75 24 43

BOLIA
TABERNA



Pintxoak, ardoak,
kombinatua
Gazte-giroko festa



ODR
ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietako leihoen, pertsiának, ateak, barandilak salmenta eta konponketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 609
Sagar Erreka Kalea 2 - 20590 SORALUZE
e-mail: odrleihoak@gmail.com



OKELA HARATEGIA

- Enkarguak hartzen ditugu
- Gertuko ganadua
- Etxeko tripaki, txistorra, saltxitxa eta mingaina

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 23 75



Soraluzeko Kooperatiba Elkarte
1910etik zabalik

Arraindegia, janaria, erropak, etxeko tresnak, etxera eramateko zerbitzua

Astelehenetik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
Larunbatak: 08:30 - 13:00

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45



MGS
Seguros

Veronica Galarraga
Gertukoia eta segurua



Astelehenetik ostiralera: 10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30
Santa Ana 13
Tel.: 665 744 055



Mimar
ILEAPAINDEGIA

Ileapaindegia Estetika Solariuma



Gabolatx, 6, behea
Tel.: 943 75 13 13 - 682 51 14 04

Belarrak
lora eta belardenda



Elikagai ekologikoak
Etxerako zerbitzua
Santa Ana 22
943 75 30 11

GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.

FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42